

# AUZI BAT

(Aurtengo indar-neurtzeetan *saria* irabazia.)

**L**ORRETAKO sukaldean, aspaldiko gabetan, bazebillen erlea : au da, zurrumurrua. Eztakit gaur, Parisen ta Berliñen artian ere, ainbeste ezta-baida ote dabillen.

Matsalenek erderaz ikasi nai zukian, bere ama Anemarik etzion eragozten, baña—¿zertako dezu erdera?—esaten zion amak alabari.

—¿Zertarako?—erantzuten zion alabak—eskale erdaldun bat atera badator ere ulertu eziñ eta.

—Ogeitamalau urte badaramazkit Lorretan, ta oraindaño ateon-dora etorri izan diran eskale erdaldun guziaz ulertu diet. Artaburu bat, ogi zati bat edo gazta apurtso bat emanarekiñ erdaldun guziaz ederki ulertu diet, eta aiñ ondo berak neri.

—Lengo zarren kontuak—esan ta buruari atz egiñaz, isilldu oi zan Matsalen, ala nai ezpazukian ere.

Matsalenek, erderaz ikasteko aitzakiz, Madrillera juan nai zukian, Amoteiko Josepa bezela, eta amak igarten zien alabaren asmoai.

Gau baten, beste askotan bezela, eraso zioten elkarri ama-alabak, eta amak esan zion:

—Erdera, orren bearra bazaitzu, errian bertan ikasi zinezake.

Al.— ¿Nun?

Am.— Santsez barkillogillearen etsian. Neskame billa omen dabil, eta

Al.— Leku onera bialdu nai nazu. Lengo egun batian eman zidan lotsa Prantsez edo traste orrek

Am.— ¿Nola?

*Al.* — Ni nere bidez kalian barruna nijuala « Ola moza » esan zidan, eta kolore gorriak atera ziztan.

*Am.* — ¿Zer esan nai izan zizun ba ?

*Al.* — Gauz on andirik ez; motza naizela.

*Am.* — Ori ulertu baziñon, nik baño erdera geiago dakizu, ta eztezu iñora juan bearrik erderaz ikasteko.

*Al.* — Ez ba; agura mortzill aren neskame juango naiz eta bai ederki eman ere.

*Am.* — Neskame jua ta etsekoandre egin zindezke.

*Al.* — Eta gero barkilloak saltzera.

*Am.* — Bai; baña erderaz.

*Al.* — Eskarrrikasko. ¿Ortarakose nagoala uste al dezu?

*Am.* — ¿Bai aldakizu, tsindurria nola ill zan ?

*Al.* — Eztakit aditure egiñ ote dedan beñere.

*Am.* — Ba jakiñ ezazu, ill zala, astuaren arrantza egiñ nai ta egiñ eziñez. Lertu ta ill egiñ zan.

*Al.* — Eztakit, zer esan nai dezun.

*Am.* — Zu Madrillera juateko asmoetan zabiltza, beste batzuek jua diralako, Orise da nai zendukiana.

*Al.* — Nik ba.... nik eztet esaten ezetzik ere, baña....

*Am.* — Baña baietz esango zendoke noski.

*Al.* — Eztakit ba.

*Am.* — Nik bai. Eta orise izango litzake astoaren arrantza egiñ nai izatia.

Matsalen mormorretan bere artian, aldendu zan, auzia galdutzat emanaz, esaten ziola bere buruari: Gure ama sorgiña eztanik ere enuke esango. ¿Nundik daltizki orrek nere atsmoak?

Amak berriz bere artian esaten zuan:

Lengo zarren esana  
Beti da egia,  
Sua dagon lekutik  
Irtearen da kia.

## II

### SENAR-EMAZTIAK

*E.* — ¿Zer deritzozu Praisko, gure Matselen burutazioai ?

*S.* — ¿Zer dakar ba, Anemari?

E. — Madrillera jua nait luke.

S. — ¿Zertara?

E. — Erderaz ikastera.

S. — Onuntzagore ikasiko du, ori baño ezpada.

E. — Oraingo umeak, beñepeñ emakumeak, oso arroak dira.

S. — Bai lengoak ere.

E. — Ez genduan ba guk orrelako arrokeririk gaztetan.

S. — ¿Ez ote? Miriñakia jazten zenduanian, arrotso agertzen ziñan ba zerori ere.

E. — Guk miriñakiak soñian oi ginduzen, baño oraingo, gaztiak buruan dabilzkite, guriak errian kabitu oi ziran, baño oraisgoak probintzian ere ez. Zepeliñak baño aruntzago eldunai lukete, ta juaten bazaigu etsetik gure Matsalen, egingo duana da, «aizia buruan ta ibilli munduan», ta gero bere ta gure ondaniendia etseratuko digu.

S. — Etzaite eztutu: nere baimenik gabe ezta ezer egingo Matsalenek, eta nik baimenik eztiot emango nolana, baizik ondo pentsatuta.

Osenbesterekiñ zerbait paketu zan Anemari, baño oso ez; bada esaten zuan Anton bera baño ere kaiku andiagoa da gure Praisko, ta alabak losentsen batzuek egiten badizka, orise askoko da bere baimena emateko.

PEDRO MIGUEL URRUZUNO TA SALEGUI

(Amaituko da.)

